



HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

Data: 2025-02-05 **Bilera zenbakia:**40

Bilera ordua eta lekua: 18:00

Parte-hartzaileak: Mari, Rosario (Bizi nahi), Monica, Laura (GE), Iker, Nagore (zinegotziak), Aitor (Arbelaitz) eta Nerea (teknikaria)

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azken batzordea lanak.

- ✓ Ekintzen berri eman elkarteetan
- ✓ Mintzalagunik deialdia zabaldu
- ✓ Aldizkariko artikuluak
- ✓ Telegram kanala erabiltzeko zabalkundea egin
- ✓ Aldizkariko artikuluak
- X Kide berriak (junta aldaketak etab) jakinarazi
- ✓ Telegram kanalean administradoreak gehitu
- ✓ Berogailuaren inzidentzia pasa brigadara
- ✓ Eskolari adierazi talo tailerra egiteko prestotasuna.
- ✓ Podologo txandak eskatu eta pantailetan jarri
Dendan jarriko dira izen emate orriak, Bizi Nahikoak hitz egin dute eta arazorik ez dago.
- ✓ 2026ko egutegirako gaiak ekarri
 - Itsasondoko mendi/ Natura
 - Itsasondoko aniztasuna
 - Itsasondoko kultura
 - Itsasondoko urteko ekintzak
 - Itsasondoko Eskola berriko marrazkiak
 - Itsasondoko janari ezberdinak
 - Itsasondoko langileak
 - Itsasondoko landareak
 - Urtaroak

2. Ekintzen balorazio laburra

U.23: Sorkuntza, harriak margotu: Oso ondo joan zen, talde polita bildu zen eta lan txukunak egin zituzten.

U.29: Emakume migranteekin formazioa. 7 emakumeek parte hartu zuten eta saioa emankorra izan zen. Bi saio aurreikusita zeuden arren, agian gehiago planteatuko dira lanketarekin jarraitzeko.

U.31: Mintzalaguna /KZ gunea: 7 lagun elkartu ziren eta ostiralero 19:00etik- 20:00era elkartzekotan gelditu dira. Herri bizitzan gogorarazten joango gara.

3. Hurrengo ekintzak herrian

6: Sorkuntza tailerra: Belarritako tailerra: Arbelaitzen egingo da azkenean.

10: Pantailen erabilera ZEOS: Izen ematea irekita dago.

11: Pantailen erabilera ZEOS

12: Emakume migranteekin formazioa

14: "Zopa" antzezlan; 18:30ean eskola arkupean izango da.

16: Mus kanporaketa

17: Pantailen erabilera ZEOS

18: Pantailen erabilera ZEOS

20: Maskulinitate berriak; datak zehazten, izen ematea berriz irekiko da.

21: Denda irekiera

22: Zuhaitz eguna (EK topaketa); izen ematea ireki

28 Sorkuntza tailerra: Belarritako tailerra; Bizi nahien egingo da.

4. Elkartetatik datozenak.

- Agapitan 102 urtebetetzea ospatzeko hamaiketako egingo da Bizi Nahi elkartean. Pantailetan jartzea eskatu dute eta Hitzara jakinaraztea. Testu bat idaztea ere egoki ikusi da, ospakizunaren kronika jasoz. (Otsailak 9, 12:00)
- Bizi nahi elkartean, asteartetan, jolas ezberdinak egiten hasi dira.
- Guraso elkartean dimisio bat izan da eta maiatzean egingo dute kargu banaketa berria.
- "Gazte eune" aurten ez da egingo, proposamen musikal bat tarteko. Laurak azaldu digu ondoren, gaztetxea biziberritzeko eta musika presentzia areagotzeko kontzertu bat antolatzen dabilta. Aurrekontu zehatza pasako dute, udalak lagundu dezakeen baloratzeko.

- Eskola berriaren atzerapenak kezka sortu du guraso elkartean eta egoeraren berri emateko bide berriak planteatzen ari dira. Arkitektoarekin bilduko dira eta hezkuntzara idatzi bat bidaltzekotan gelditu dira.
- M8ko bazkaria egiteko boluntarioei deia egingo zaie.
- Medikuaren inguruan aipatu da baten bat asignatua omen dagoela (ziurtasun gabeko zurrumurrua da)

5. Udaletik datozenak.

Herri bizitza batzordea, ordua 18:00etan

Martxoak 12, Apirilak 9, Maiatzak 7, Ekainak 11

6. Besteak:

Euskaraldia: O.5ean 19:00etan dago Itsasondo, Alzaga eta Aramako lehen batzordea.

Batzorden honen berri emango da.

Txoko antolatzeko deialdia: Martxoaren 14ean egitea proposatu da, 19:00etan.

Gaztelekua: Leihoak puskatu dituzte, salaketa jarri da eta aseguruarekin berriak jarri dira.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Ekintzen berri eman</i>	<i>Denok</i>	
<i>Egutegiko gaia aukeratzeko galdeketa egin</i>	<i>Nerea</i>	<i>Otsailean zehar</i>
<i>Telegramen sorkuntza tailerra leku aldaketa jarri</i>	<i>Nerea</i>	<i>Otsailak 6</i>
<i>Mintzalagun saioak gogorarazi</i>	<i>Nerea</i>	<i>Ostiraleroko</i>
<i>Zopa antzerkirako berogailuak begiratu</i>	<i>Nerea</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
<i>Agapitan urteak pantaila eta Hitza</i>	<i>Nerea</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
<i>Agapitan testua</i>	<i>Nagore</i>	<i>Igandean</i>
<i>Asteartetan erreserba egin Bizi Nahi elkartekoa</i>	<i>Nerea</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
<i>Txoko garbiketa (martxoak 14, 19:00) deialdia</i>	<i>Nerea</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: Martxoak 12, 18:00		